



2023UDOS0017

Andoingo Udala

**Akta: Osoko Udalbatza**

OHIKO BILKURA: 2023/12/20

**Acta: Pleno Municipal**

SESIÓN ORDINARIA: 20/12/2023

**Lekua: Batzar Aretoa / Lugar: Salón de Plenos****Bildutakoak: / Asistentes:****Alkatea / El Alcalde** Andoni Alvarez Lete**Zinegotziak: / Concejales/as:**

|                           |  |
|---------------------------|--|
| <b>EH-Bildu</b>           | Marta Lasa Goñi<br>Xabier Fondón Pajares<br>Garazi Usandizaga Zubiria<br>Iosu Mateo Torrillos<br>Haizea Barandiaran Zubillaga<br>Diego Barrasa Ruiz<br>Larraitz Arriola Larrarte |
| <b>PSE-EE</b>             | Maider Lainez Lazcoz<br>José Luis Verdasco Gutierrez<br>Aritz Alkain López<br>María Belén Moreno Méndez  |
| <b>EAJ-PNV</b>            | Imanol Goenaga Egibar<br>Idoia Mikelez Alonso<br>M <sup>a</sup> Sagrario Ruiz Fernández  |
| <b>Elkarrekin Podemos</b> | Jose Mari Iparragirre Balda  |

|               |                   |
|---------------|-------------------|
| Akta Zenbakia | <b>0000017</b>    |
| Eguna         | <b>2023/12/20</b> |
| Hasiera       | <b>19:00</b>      |
| Amaiera       | <b>19:50</b>      |

**Idazkaria:**

María Uriarte Zurikaray

**Kontuhartzailea**Myriam Lizaso  
Arruabarrena**Interpretaria****Ez da bertaratu eta adierazi du: / No asiste y se excusa:**

Ascensión Parrón Peguero

**Gai Zerrenda:****Orden del Día:****Xedapenak**

1. Laneko Arriskuen Prebentziorako planaren aldaketa hasierako onarpena ematea.
2. Onartzea Emakumeen eta gizonen berdintasunerako klausulak kontratazio publikoan txertatzeari buruzko jarraibidea.
3. Bidaiarien herri garraio zerbitzua emateko kontatuaren esleipena.
4. Garapen Agentzien Euskal Elkarteko bazkide izateari uzteko proposamena
5. 2023.12.07an EH Bildu udal taldeak aurkeztutako mozioa, Anbulategietako arreten inguruan eta PSE-EE udal taldeak 2023/12/12an aurkeztutako mozio alternatiboa..

**Kontrola**

6. Ebazpenen berri ematea, zehazki, 2402 zenbakidunetik 2573 zenbakidunera.
7. Galderak, eskaerak eta proposamenak.

**Parte Dispositiva**

- 1.- Aprobación inicial de la modificación del Plan de Prevención de Riesgos Laborales.
- 2.- Aprobación de la Instrucción sobre incorporación de cláusulas para la igualdad de mujeres y hombres en la contratación pública.
- 3.- Adjudicación del contrato para el servicio de transporte urbano de viajeros.
- 4.- Propuesta de cese de la Asociación Vasca de Agencias de Desarrollo
- 5.- Moción presentada el 7/12/2023 por el grupo municipal de EH Bildu sobre las atenciones en los ambulatorios y moción alternativa presentada el 12/12/2023 por el grupo municipal PSE-EE..

**Parte de Control**

- 6.- Dar cuenta de las Resoluciones comprendidas entre la n° 2402 y la n° 2573.
- 7.- Ruegos, preguntas y propuestas.



---

**Nahikoa quorum dagoenez eta lehendakaria eta idazkaria ere bertan daudenez, bilkura baliozki eratzen da.**

---

Alkate jaunak, hartu du hitza, honakoa esateko:

“Arratsalde on eta ongi etorriak 2023ko azken udalbatza honetara.

“Asteburuan eta azkar batean, albiste lazgarri bat izan genuen. 2011-2015 legealdian zinegotzi izan zen Aitziber Ugartemendia Zubeldiaren heriotzaren berri izan genuen. Andoingo Udalaren izenean eta hemen ordezkatuta gauden alderdi politiko ezberdinen izenean gure elkartasuna eta babes adierazi nahi diegu bere familiari eta gertukoei.”

### **1. Laneko Arriskuen Prebentziorako planaren aldaketa hasierako onarpema ematea.**

Konstituzioko 140. artikulua udalerriei aitortzen dien autonomiaren oinarriaren gainean, Toki Jardunbideko Oinarri buruzko apirilaren 2-ko 7/1985 Legeko 4.1.a) artikulua udalerriei bere burua antolatze ahalmena aitortzen die.

Ikusirik, 2023ko abenduaren 5a datan idazkaritako administrazio orokorreko teknikariak emandako txostena.

Ikusirik, datan emakume eta gizonen berdintasun teknikariak 2023ko abenduaren 5ean emandako txostena.

Ikusirik, Langilegoa, Antolakuntza eta Barne Araugintza Batzordeak 2023ko abenduaren 12ko bileran emandako aldeko irizpena.

Fondón jaunak, langileria, antolakuntza eta barne eraentzako zinegotzi ahalduak, hartu du hitza, honakoa esateko:

“Bai, arratsalde on. Puntu honetan prebentzio plana onartzen duen araudiaren aldaketa aurkezten da, zeren erabaki behar dugu, udalak prebentzioa egiteko garaian, zer baldintzetan eta zer eredu jarraitu behar duen, legez jasota egon behar duelako. 2014. urteraino kanpoko enpresa batek kudeatzen zuen, baina orduz geroztik udaletxeko bi langile daramate, beraz, kudeaketa aldaketa hau, prebentzio planean jasota egon dadin, aurkezten dugu proposamena.”

Gaia eztabaidara jarri da eta parte-hartzerik izan ez denez, Alkate jaunak proposamena bozketara jarri du eta Osoko Udalbatzarrak, aho batez, Alkate jaunaren eta EH Bildu, PSE-EE, EAJ/PNV eta Elkarrekin Podemos udal taldeetako zinegotzien aldeko botoekin, honakoa erabaki du:

1. Onestea, hasierako izaeraz, *Udaleko Prebentzio Planaren araudiaren* aldaketa.
2. Administrazio-espeditentea jendaurrean jartzea, dagokion iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Andoingo Udaletxeko iragarki-taulan eta [www.andoain.eus](http://www.andoain.eus) Udal web-orrian argitaratuz, 30 eguneko epeaz, interesdunek espeditentea aztertu eta egoki iritzitako alegazio eta iradokizunak aurkeztu ahal izateko.
3. Espeditentea jendaurrean dagoen bitartean alegaziorik edo iradokizunik aurkeztuko ez balitz, aipatu araudia behin-betiko izaeraz onetsita geratuko da.

### **2. Onartzea emakumeen eta gizonen berdintasunerako klausulak kontratazio publikoan txertatzeari buruzko jarraibidea.**

Martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren 24.2 artikulua oinarri hartuta, toki-erakundeek, beren jardun-eremuari dagokionez, kontratazio publikoan berdintasuna sustatzeko jarraibideak ematen dituzten jarraibideak onartu ahal izango dituzte (Dekretu horren 22. artikulua araberan).

Ikusirik, 2023ko abenduaren 5ean emakume eta gizonen berdintasun teknikariak emandako txostena.

Ikusirik, 2023ko abenduaren 5ean kontratazio teknikariak emandako txostena.

Ikusirik, 2023ko abenduaren 7an idazkariak egindako txostena.

Ikusirik, Emakumeen eta Gizonen Berdintasuna Batzorde Irizpenemailearen 2023/12/12 datako irizpena.



Barandiaran andreak, emakume eta gizonen berdintasuneko zinegotzi ahaldunak, hartu du hitza, honakoa esateko:

“Arratsalde on. Gai honekin sektore publikoko kontratuen legeak eta berdintasun legeak, erakunde publikoen jarrera proaktibo bat izatea eskatzen du, emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatze aldera. Hori kontutan hartuta, jarraibide bat eginda kontratazio publikoko prozedurako momentu desberdinetan emakumeen eta gizonen berdintasunerako klausulak ezartzen direla bermatzeko.

“Jarraibide honen helburua Andoingo udaleko kontratazio prozedura guztietan emakumeen eta gizonen berdintasunean eta bestalde, prozedura horietan, genero ikuspegia txertatzea bereziki eragiten duten klausulak arautzea litzateke.

“Egia da jurisprudentzia bat badagoela epaitegi batzuetan ez direla zenbait klausula onartu, baina batez ere, kontrakotasuna, alde batetik, kontratazioaren helburuarekin zerikusia ez zuten klausulak zirelako edo planteatzen zidalako, eta beste alde batetik, klausula horiek ez zutelako zerbitzua bera hobetzen, izan zen.

“Andoainen hori ekiditeko, udalak kontratazio bakoitzean aurre txosten bat egitea proposatzen da, batez ere, hori, espediente bakoitzaren aurrean edo aurretik, kasu bakoitzeko pertinentiak izango diren klausulak planteatzeko orduan, horixe, hori dakarkigu gaur.”

Gaia eztabaidatu ondoren, Alkate jaunak, proposamena bozketara jarri du eta Osoko Udalbatzarrak, aho batez, Alkate jaunaren eta EH Bildu, PSE-EE, EAJ/PNV eta Elkarrekin Podemos udal taldeetako zinegotzien aldeko botoekin, honakoa erabaki du:

- 1.- Onestea *Emakumeen eta gizonen berdintasunerako klausulak kontratazio publikoan txertatzeari buruzko jarraibidea.*
- 2.- Ebazpenaren berri ematea udal lansailei.

### 3. Bidaiarien herri garraio zerbitzua emateko kontatuaren esleipena.

Ikusirik Udaleko Osoko Udalbatzak, 2023ko irailaren 28a datako laugarren akordioaren bidez, onartu zituen baldintza administratibo berezien agiria eta baldintza teknikoaren agiria, bidaiarien hiri-garraio zerbitzua emateko kontratuaren esleipena arautuko dutenak. Kontratua jardunbide ireki bidez esleituko da.

Kontuan hartuz, 2023ko azaroaren 10a datako udal idazkariaren ziurtagirian jasotzen denez, lizitazio denboraldian proposamen bat aurkeztu da, honako enpresak egina: Autocares Urpa SL.

Ikusirik hirigintza eta zerbitzuetako administrazio orokorreko teknikariak 2023ko azaroaren 17an eta udaleko euskara lansailek 2023ko azaroaren 21ean egindako txostena.

Ikusirik Kontratazio Mahaia 2023ko azaroaren 22ko akta, non Autocares Urpa SL enpresaren aldeko esleipen proposamena egiten den.

Proposatutako lizitatuak 2023ko abenduaren 11n aurkeztu dituelarik 2023ko azaroaren 23a datan igorritako ofizioan eskatutako agiriak.

Aintzat harturik egiaztatu dela proposaturiko gidari berriak baldintza administratibo berezien agiriaren karatulako 16.4. klausulan eskatutako hizkuntz-eskakizuna betetzen duela.

Azkenik, ikusirik Kontratazio Mahaiko lehendakariak 2023ko abenduaren 14an egindako esleipen proposamena.

Fondón jaunak, zerbitzuetako zinegotzi ahaldunak, hartu du hitza, honakoa esateko:

“Aurreko batzordeetan esan bezala, enpresa bakarra izan zen aurkeztu zena. Dagoeneko dokumentazio guztia tramitatu dute. Eta kontratu berria martxan jartzeko moduan dago, baina hurrengo hilabete hau itxaron egingo dugu geltoki berrien egokitzea bukatu arte.”

Jarraian, Lainez andreak, PSE-EE udal taldeko eledunak, hartu du hitza, honakoa esateko:

“Buenas tardes a todas y a todos, decir que el grupo municipal socialista va a apoyar la adjudicación del contrato, porque, ya en mayo se trajo el pliego que cumple las expectativas y en principio es el mismo que luego sea traído también en septiembre y con este pliego que se hizo, sobre todo lo que se quería era



responder a las necesidades que tenía la ciudadanía de Andoain, tanto con la nueva configuración de los horarios, lo cual va a suponer una mejora tanto en el actual servicio que, como decíamos, sobre todo queremos responder a las necesidades que tenemos.

“También aprovechamos para volver a insistir en que se estudie la posibilidad de la incorporación del hiriibus de Andoain en la tarifa Mugi, porque entendemos también que favorecería a la ciudadanía de Andoain. Eskerrik asko.”

Gaia eztabaidara jarri da eta parte-hartzerik izan ez denez, Alkate jaunak proposamena bozketara jarri du eta Osoko Udalbatzarrak, aho batez, Alkate jaunaren eta EH Bildu, PSE-EE, EAJ/PNV eta Elkarrekin Podemos udal taldeetako zinegotzien aldeko botoekin, honakoa erabaki du:

1.- Bidaia-herri-garraio zerbitzua emateko kontratua esleitzea Autocares Urpa SL enpresari. Bere proposamenaren ezaugarri eta abantailak Kontratazio Mahaiak 2023ko azaroaren 22an emandako aktan jasotzen dira. Esleipendunari igorri beharreko esleipen akordioaren jakinarazpenari atxikirik joango da dokumentu hori.

2.- Kontratuaren esleipenaren prezio jakina, esleipena hartzaile enpresaren proposamenaren arabera, honakoa da:

| Esleipen prezioa urtero         | BEZ         | Esleipena Guztira urtero |
|---------------------------------|-------------|--------------------------|
| 153.937,89 €                    | 15.392,79 € | 169.330,68 €             |
| <b>Aurrekontu partida</b>       |             |                          |
| 1.0200.227.441.10.08.2023 (223) |             |                          |

Zerbitzu berezien prezioa/orduko honakoa da: 47,59 €, gehi BEZ-ari dagozkion 4,76 € (guztira 52,35 €).

Kontratuaren finantziarioa goian zehazten den aurrekontu kontu-sailaren bidez egingo da.

3.- Kontratuaren iraupena 10 urtekoa izango da, dagokion kontratu administratiboa sinatzen den egunetik kontatzen hasita.

4.- Kontratuaren arduraduna Ramón Varela López izango da, Udaleko ingurumen teknikaria izanik. SPKLren 62. artikulua eta baldintza administratibo berezien agiriak emandako ahalmenak izango ditu.

5.- Erabaki hau enpresa esleipendunari jakinaraztea, eskatuz 15 laneguneko epean, jakinarazpen hau jasotzen den egunetik kontatzen hasita, baldintza administratibo berezien agiriko 30 baldintzan aurrekusten diren jarduerak burutu ditzan.

6.- Esleipenari dagokion administrazio-kontratua sina dezan Alkateari ahalmena ematea, zeina 15 laneguneko epean izenpetuko den, esleipen akordioaren jakinarazpena jasotzen den egunaren biharamunetik kontatzen hasita.

7.- Erabaki hau Kontratazaile Profilean argitaratzea, azaroaren 8ko 9/2017 Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 154 artikuluan xedatutakoari jarraiki.

8.- Erabaki honen berri ematea Udal Kontuhartzailetzari.

**4. Garapen Agentzien Euskal Elkarteko bazkide izateari uzteko proposamena.**

Kontuan izanik 2009-05-08an, Udal Tokiko Gobernu Batzarrak hartutako erabakia, Andoingo Udala GARAPEN Agentzien Euskal Elkartean bazkide gisa alta emateko egindako eskaera.

Jakinik 2009ko irailaren 11n GARAPEN elkartearen Batzar Nagusiak Andoingo Udala entitate bazkide gisa izatea onartu zuela.

Ikusirik, 2012tik orain artean Andoingo Udalak Beterri Buruntzako udalen ordezkartizan, GARAPEN elkartearen baitan mantendu dela bazkide gisa.

Ikusirik orain dela gutxi sortutako Beterri Buruntzako Mankomunitateak bere eskaera luzatu duela GARAPEN elkarteko kide izateko 2024tik aurrerantzean.

Jakinik Andoingo Udala Beterri Buruntza Mankomunitateko parte dela.

Kontuan izanik 2023.11.29ko datarekin Sustapen Ekonomikoa, Enplegua eta Gazteria lansaileko



Teknikariaren, Hilario Dorronsoro Alustiza jaunaren txostena.

Kontuan izanik 2023.11.30eko datarekin udal idazkariak egindako txostena.

Ikusirik, Sustapen Ekonomiko, Enplegu eta Gazteria Batzordeak 2023ko abenduaren 13ko bileran emandako aldeko irizpena.

Alkate jaunak, hartu du hitza, honakoa esateko:

“Bueno, dakizuen bezala, Andoingo udalak 2009an edo izan zen bazkide bezala onartua Garapen Agentzia Euskal Elkartean. Garapen agentzia honek udalerriei eta mankomunitateei aholkularitza eta zerbitzu desberdinak eskaintzen dizkie. Kontuan izanik, Beterri Buruntza mankomunitatea sartu dela orain Garapen Agentzia horretan, ez du zentzurik Andoingo udala bertan egotea. Beterri Buruntzako mankomunitateak ordezkaturiko dituelako gure eskualdeko udalerria ezberdinak. Ondorioz, guk baja eman dugu eta gure ordezkaria eskualdeko gainerako herriein batera, Beterri Buruntzako Mankomunitatea izango da.”

Gaia eztabaidara jarri da eta parte-hartzerik izan ez denez, Alkate jaunak proposamena bozketara jarri du eta Osoko Udalbatzarrak, aho batez, Alkate jaunaren eta EH Bildu, PSE-EE, EAJ/PNV eta Elkarrekin Podemos udal taldeetako zinegotzien aldeko botoekin, honakoa erabaki du:

1.- Andoingo Udalak “GARAPEN” Garapen Agentzien Euskal Elkarteko bazkide izateari uztea, 2023.urtea izanik bazkide gisa azkeneko urtea.

2.- Jakinaraztea “GARAPEN” Garapen Agentzien Euskal Elkarteari Andoingo Udalak hartutako erabakia.

3.- Akordio honen berri ematea Kontuhartzaitza eta Sustapen ekonomiko, Enplegu eta Gazteriako lansailei, jasota gera dadin.

#### **5. 2023.12.07an EH Bildu udal taldeak aurkeztutako mozioa, Anbulategietako arreten inguruan eta PSE-EE udal taldeak 2023/12/12an aurkeztutako mozio alternatiboa.**

Arriola andreak, EH Bilduko zinegotziak, hartu du hitza, mozioa irakurtzeko, honakoa dioena:

“Arratsalde on denei. Premiazkoa da ausardiaz, pertsonal politika aldatzea Osakidetzan, pertsonal politika aldatzen ez den bitartean eta ikusita ba epe motzean izango dugun egoera, Andoainen ere, etenik gabeko guneak eta osasun etxeetako ordutegi murrizketa eta itxieren ondorioz, ezinbestekoa da sortuko diren kalteak ahalik eta txikienak izateko ondorio aringarriak hartzea, paliatiboak, ohiturazko neurriak hartzen ez diren bitartean, herritarrekiko gardentasunez eta zintotasunez jokatzeko.

“Halaber, aldi berean premiazkoa da planifikatzea, antolatzeari eta kudeatzeari ekitea. Pazienteen hobe beharrez ezin dugu jarraitu orain arte bezala. Azkenean, pazienteak, herritarrak, ospitaleetan, ospitaleetako larrialdietan bukatzen dutelako eta ospitaleko larrialdiak direlako eta emergentziak ere direlako, ahal duten bezala sistema eusten ari direnak, Osakidetzan urteetan ezarri diren politiken ondorioz.

“Baina herritarrak, pazienteak dira galtzaile nagusiak alde batetik bestera, noraezean diagnostiko bat egiteko eta erantzun bat jasotzeko.

“Ondorioz, herritarrei ezin zaie esan osasun errekurtsoen erabilera okerra egiten dutenik, baldin eta erakundeek ez baldin badituzte ditugun osasun errekurtsoen erabilera egokia sustatzen eta baldin eta Osasun Sailak Osakidetzako minimoen azpitik baldin badauka.

“Osakidetzan egiturazko plantilla, lanpostuak erregularizatzeaz gain, eguneroko plantilla guztia egiturazkoa izateko eta gainera hori handitzeko neurriak behar ditugu.

“Zeren, ezin da esan jendea falta dela eta gero eguneroko plantilla egiturazkoa bilakatzeko neurririk ez hartzea eta plantilla hori handitzeko neurririk ez hartzea eta gainera, egunerokoan dauden lanpostu horiek kode gabe daudenak deuseztatu eta koderik jartzen ez zaielako.

“Bitartean, herritarrek osasun zerbitzuak behar dituzte egunerokoan sortzen zaizkien gaixotasun eta osasunarekin loturiko egoerei aurre egiteko eta ondorioz, herritarrekin ahalik eta zintzoen eta gardentasun osoz jokatzearaz gain, epe motzeko neurriak behar ditugu herritarrek eta Osakidetzako langileek pairatu ditzaketan kalteak arintzeko.

“Osakidetzak pertsonal politikarien eraldaketari ekiten dion bitartean eta ikusita abendu eta urtarrilean etenik gabeko guneetan eta osasun etxeetan egin diren urrutiegi murrizketak, herritarrei ahalik eta kalte



gutxien eragiteko ondorengo neurriak har ditzala eskatzen dugu.

“Bat, etenik gabeko arreta guneetako eta osasun etxeetako zein udalerriko zerbitzuetako ateetan eta iragarki tauletan abendu eta urtarrila bitartean izango den ordutegia eta egongo diren zerbitzuak gardentasunez azaltzeaz gain, komunikabideen bidez ere, aurrez herritarri jakinaraztea zein izango den egoera herri bakoitzean eta nora jo behar duten, horrela herritarrek momentu oro jakin dezaten hori, nora jo izan dezaketen gaixotasun edota larritasunaren arabera.

“Abendutik urtarrilera, urtarrila bukatu bitartean, barkatu, hesietan eta ezohiko osasun etxeetan administrari eta erizain gehiago kontratatzea, herritarrei hitzorduak presentzialki eta telefono bidez emateko, horrela presentzia ahultasunaren bidez osasun egoera larriagoan egon daitezkeen herritarrak hobeto identifikatzeko eta herritar guztiei Osakidetza sarrera errazteko.

“Osakidetzak autonomia ematea ESItako Lehen Arretako eta Etenik Gabeko Arreta Guneei euren agenda, ordutegiak eta gaixoak artatzeko protokoloak antolatzeke, udalarekin eta herriko gizarte-eragileen ordezkariarekin adostuz. Bermatuz gaixo jartzen diren herritarrekin jarrailu beharreko protokoloa.

“Horretarako, gainean ditugun gabonetako opor edo jai egunak hobeto antolatzeke. Oskidetzak ahalbidetu diezaiela ESIta, osasun langileak hartu gabe dituzten egunak, urtea bukatu aurretik ez badituzte hartzen, datorren urtean hartzeke aukera.

“Halaber, guardiarengatik, egunez zein gauez lan egiteagatik Osakidetzako eremu guztietan berdin ordaintzea, izan ospitaleko larrialdietan zein EAG edo Emergentziak.

“EAGak mediku gabe ez geratzeko sektorizatzea, horretarako herritarren artean eta eraginda dauden udalerrietan protokoloa argiak zabalduz, herritarrek jakiteko zein kasutan nora joan behar duten eta erizainekin soilik geratzen diren EAGak herritarrei azalduz, zeintzuk diren eta zein gaixotasun eta larritasuna larritasun honetarako izango diren eta bukatzeke, orain arte kontratu partzialak dituzten osasun langileei ehuneko 100eko kontratuak eskaintzea.”

Alkate jaunak, hartu du hitza, honakoa esateko:

“Jarraian Alderdi Sozialistak irakurriko du bere mozioa eta gero eztabaida irekiko dugu.”

Alkain jaunak, PSE-EE udal taldeko eledunak, hartu du hitza, honakoa esateko:

“Arratsalde on. Buenas tardes.

“El Ayuntamiento de Andoain insta al Departamento de Salud del Gobierno Vasco a:

“1.- Que culmine el proceso iniciado para crear un sistema de información que con la colaboración de los ayuntamientos de Euskadi, permita a la ciudadanía a acceder de forma sencilla y rápida a la información actualizada de calendarios, horarios y lugares de atención sanitaria de la red de atención primaria Osakidetza.

“2.- Concluir el proceso de estabilización de más de 11.000 plazas de la plantilla de Osakidetza y, en todo caso, a continuar incrementando, en la medida de las necesidades asistenciales, las plazas del personal médico especialista en medicina familiar y comunitaria, del que se nutren en buena medida a los puntos de atención continuada.

“3.- Que, en ausencia de profesionales suficientes, organizan las jornadas de los puntos de atención continuada, dando prioridad a la función intermedia que en continuidad de servicios tienen estos centros entre la atención primaria y las urgencias hospitalarias, evitando coincidencias o duplicidades, y a que, en cualquier caso, se organiza en alternativas asistenciales para seguir garantizando la asistencia sanitaria a la ciudadanía de Andoain en este caso. Eskerrik asko. Muchas gracias.”

Gaia eztabaidara jarri da eta lehenbizi, Arriola andreak, EH Bildu udal taldeko zinegotziak, hartu du hitza, honakoa esateko:

“Eskerrak aurkeztu duzuen mozioagatik Alkain jauna, eta mozioan aipatzen dituzuen edo eskatzen dituzuen puntuen harira, lehenengo puntuari jarrailuz, harriduraz hartu dugu, ze ez dakigu, ez nik, ez osasun zentroan, ESItan, zer informazio sistemaz ari zaretan.

“Guk dakigunez, ez dago sistema hori eta Andoingo osasun zentroan jaso duten irizpide bakarra egoeraren aurrean izan da kartel bat jarri behar dutela atean, eta horixe da egin dutena.

“Eta ESItan ere galdetuta, hori da daukaten irizpidea. Osakidetzako web orrian sartzen bazarate badago abisu jartzen duena, baina abisu bat, hori ez da informazio sistema bat, eta hor sartu ezker, bai





agertzen da zer gertatu den uste dut nola deitzen diote? Ordutegi doikuntzei buruzko txostena, baina azaroak 13koa da, ez dago berrituta eta, Tolosaldea ezta agertu ere egiten. Orduan ez dakit. Gu ados gaude, noski, informazio sistema eta hori guztiarekin eta eskatzen dugu, hori da gure puntuan eskatzen duguna, baina zuek esaten duzuen sistema horren berri ez daukagu eta horregatik eskatzen dugu hori argitu dezaten eta egin dezaten lan gehiago edo behintzat argitasun gehiago edo irizpide gehiago eman herritarrak informatuak egoteko.

“Bigarren puntuari dagokionez, egonkortze prozesua noski hasi dela eta hasi dute noski berandu ere eta behartuta Izeta legearengatik. Bueno, duela ia zortzi urte Europatik esaten ari dira ezinezkoa zela hemen gertatzen ari zen egoera. Bi plantilla horietako desberdintasuna, ez? Egiturazko plantilla eta plantilla, eguneroko plantilla edo plantilla funtzionala deitzen dioten desberdintasun horri.

“Ehuneko zortzia da Europak esaten zuen, gutxi gorabehera mantendu behar den oreka eta Osakidetzan, gaur egun, ehuneko 50a da. Izeta legeak behartuta Osakidetza hasi da egonkortze prozesua egiten. Guk ere esaten dugu egonkortze prozesu horrek aurrera jarraitu behar duela, baina ojo baita prozesu horrekin, ze kodifikatuta gabe dauden lanpostu guztiak atzera ari dira eta suntsitzen ari dira eta txantxa ez da, zeren 2209 lanpostu daude kodifikatu gabe.

“Eta horrek, nik uste dut horren gainean egon behar dugula eta egonkortze prozesu hori jarraitu behar du martxan baina, nola egiten den ikusita. Abenduak 14ean Mahai Sektorialean sindikatuei eman zitzaizkien datuen arabera, Osakidetza onartu du 119 lanpostu suntsitu dituela egonkortze prozesu horretan, kode gabeko lanpostu horiek eta ez dira lanpostu solteak. Zeladoreak edo administrariak ez dira bakarrik, badaude erizainek ere bai, eta bueno, egia esan denak dira inportanteak, eta horretan kontu eduki beharko dugu.

“Etengabeko arreta egunen kudeaketan hirugarren puntuan esaten duzue, kudeaketa hobetu behar dela, bai, guk uste dugu, eta horregatik eskatzen dugu autonomia eman behar zaiela ESiei, beraiek antolatzeke etengabeko arreta guneak eta osasun zentroak eta deribazioak, ze beraiek dakite hobeto zeintzuk diren dituzten baliabideak eta nora bideratu behar dituzten baliabide horiek. Eskerrik asko.”

Berriro, Alkain jaunak, PSE-EE udal taldeko eledunak, hartu du hitza, honakoa esateko:

“Como también manifestamos en el pleno del pasado mes de julio, las y los socialistas estamos preocupados por la situación actual de los puntos de atención continuada, somos conscientes de su importancia, de su alta valoración por la ciudadanía de Euskadi, por su proximidad y por su rapidez a la hora de dar respuesta a las pruebas de salud que afectan a la ciudadanía, y también por la continuidad que ofrecen en la atención, cuando los horarios de los centros de salud no están abiertos, como es el caso.

“En este sentido, las y los socialistas tampoco somos ajenos a la problemática que está afectando a los centros de salud y a nuestra sanidad pública, entre ellos lo que comentabas del servicio de comunicación, que, como bien decía y como pedimos en nuestra moción alternativa. Pedimos que se culmine este proceso, que se ha iniciado en colaboración con los ayuntamientos, porque creemos, y así debe ser, que tienen que permitir a la ciudadanía de una forma sencilla acceder a esa información que ahora mismo nos consta que no es así.

“Es por ello que apostamos, tal y como indicamos en nuestra moción alternativa, por seguir abordando todas las posibilidades de mejora para revertir esta situación, con medidas para dotar de más profesionales, crear más puestos estructurales, reducir la interinidad de las y los profesionales, dotar de más recursos, mayor diálogo, información a la ciudadanía, mayor coordinación con los equipos de las unidades de atención primaria, apostar por el abordaje integral de todas las personas, que sean los lugares de esos puntos de atención continuada.

“Tenemos claro que la problemática actual requiere de medidas estratégicas y ambiciosas que vayan de la mano de todos los actores implicados, y es por ello que hemos presentado esta moción alternativa.

“Asimismo, queríamos aprovechar esta oportunidad para reconocer y agradecer y poner en valor, en nombre de mi grupo, el trabajo que hacen los profesionales sanitarios.”

Jarraian, Alkate jaunak, hartu du hitza eta honakoa esan du:

“Beste norbaitek hartuko du hitza?. Bozketan jarriko dugu orduan gaia. Lehenik eta behin, EH Bilduk aurkeztutako mozioa jarriko dugu bozketan.”



Gaia eztabaidatu ondoren, Alkate jaunak proposamena bozketara jarri du eta Osoko Udalbatzarrak, gehiengoz, Alkate jaunaren eta EH Bildu eta Elkarrekin Podemos udal taldeetako zinegotzien aldeko botoekin eta PSE-EE eta EAJ/PNV udal taldeetako zinegotzien kontrako botoekin, mozioa onartu da.

Alkate jaunak hartu du hitza eta honakoa esan du:

“Onartua izan denez, ez dugu mozioa alternatiboa bozketara jarriko.”

## **6. Ebazpenen berri ematea, zehazki, 2402 zenbakidunetik 2573 zenbakidunera.**

Alkateak zinegotzi guztiei jakinarazi die Alkatetzaren ebazpenak, nahiz eta edukiaren berri izan Udalbatzarra aurretik, beraien esku daudela, hain zuzen ere, 2402 zenbakidunetik 2573 zenbakidunera.

